



# Neoklasizismoa

---

## Sarrera

---

1789tik aurrera, gizadiaren historian deitu izan zaion aroa amaitu eta gaur arte iraun duen aro berriari ematen zaio hasiera, Aro Garaikideari alegia.

Aro berri honen hasiera historia-gertaera garrantzitsu eta sinboliko batek zehaztu zuen: Frantziako Iraultzak. Hirugarren estamentuaren matxinada (burgesiak, eskulangileek eta nekazariak eraturakoa) Antzinako Erregimenaren oinarrien aurkako matxinada izan zen. Horren bitartez, gizartearen antolaketa ez ezik, elizak, nobleziak eta monarkiak zuten boterearen monopolioa ere zalantzan jarri zen.

Aro Modernotik Aro Garaikidera arteko aldaketa ez zen baketsua izan; batetik, absolutisten -Antzinako Erregimenaren aldekoak- eta liberalen -burgesia, artisauak- arteko aurkakotasuna zegoen; eta, bestetik, liberalen beraien arteko istiluak. Azken horiek XIX. mendean zehar Europa guztia astindu zuten, gatazka eta gerra ugari sorraraziz.

Euskal Herrian ere, Aro Garaikidearen lehenengo garaia ez zen erraza izan; absolutisten eta liberalen arteko borrokek XIX. mendearen lehen erdian lurraldea astindu zuten. Aurkakotasun horrek eraginda, Euskal Herrian hiru guda izan ziren: Konbentzio Gerra, Independentzia Gerra eta Lehen Karlistaldia. Baina gatazka hauek ez ziren politikoak bakarrik izan, ekonomiara, gizartera eta kulturara ere zabaldu ziren.

Aldi berean, mugimendu politikoak Liberalismo deritzon filosofia politikoa sortu zuen, eta horrek Ilustrazioaren ideologia bizitzako hainbat arlotan ezarri zuen, hala nola, ekonomian, gizartean eta kulturaren besteak beste. Esate baterako Ilustrazioaren garaian idatzi ziren Europako lehenengo entziklopediak, hala nola, Diderotek eta D'Alembertek egin zuten Encyclopédie ospetsua.

## Arte neoklasikoa

---

Arte neoklasikoa XVIII. mendearen bigarren erdialdean eta XIX. mendearen hasieran Europan garatu zen mugimendu artistikoa izan zen. Orokorrean, aurretik zetozen barrokoaren eta rokokoaren irudi-gehiegikerien aurkako mugimendua izan zen. Antzinate klasikoaren eta zibilizazio greko-erromatarren eredu klasikoak kopiatzen ziren.

Neoklasizismo izena XIX. mendean jarri zitzaion. Izenak adierazten duen bezala, garai klasikoarekiko miresmena da proposamen berri horren ezaugarri nagusia, eta arrazoia sentimenduari gailentzea.

Arestian aipatutako gertakizun politiko guztiak azkar gertatu ziren XIX. mendearen erdialdetik aurrera politikan, ekonomian nahiz zientzian. Istiluek gizartearen arlo guztietan izan zuten eragina eta, beraz, baita kulturaren eta artearen ere. Garai honetan, adibidez, beste garai batzuetako uniformetasuna desagertu egiten da eta etengabeko aldaketa-prozesuan zegoen gizarte baten beharrei erantzuten ahalegintzen diren arte-mugimendu ugari sortzen dira. Gainera, artisten lanak sustatzeko, haien artelanen hedapena areto edo erakus-lekuetan egiten hasi ziren lehen aldiz.

Beraz, XIX. eta XX. mendeetan sortu eta XXI. mendean jarraipena izango duten arte-estilo eta mugimenduen jatorria garai honetakoa da. Izan ere, neoklasizismoak, eklektizismoak, modernotasunak, abangoardiek eta postmodernitateak artistaren berezitasuna bilatzen dute eta gizartearen arabera aldatuz doan artea izendatzeko ahaleginak baino ez dira.

Neoklasizismoak bi oinarri izan zituen:

- Ilustrazioko ideia (Greziarekiko eta Erromarekiko interesa berpiztu baitzuen mugimendu horrek)
- Arkeologia-aurkikuntzak

Laburbilduz, neoklasizismoak ordena eta arrazoia berreskuratzea zuen helburu.

## Euskal Herria eta Neoklasizismoa

Neoklasizismoa Euskal Herrian, Europako beste herrialde batzuetan bezala, XVIII. mende bukaera aldera hasi zen zabaltzen, antzinako joera greko-erromatarrik oinarritzat harturik eta ordura arte indarrean zegoen barrokoaren aurkako erreakzio modura. Arrakasta handia eduki zuen eta, guda eta istilu ugari izan arren, Euskal Herrian arte-agerpen interesgarriak garatu ahal izan ziren, batez ere, arkitektura mailan.

Neoklasizismoa Euskal Herriko artearentzat oso garrantzitsua izan zen, lehen aldiz, Europan eta Euskal Herrian aldi berean garatu baitzen estilo hau.

Ilustrazioa aldaketa horren bultzatzaile garrantzitsua izan zen arren, gainerako botereek ere (monarkia, noblezia eta eliza) estilo hori bere egin zuten. Izatez, Euskal Herrian burgesia eta noblezia izan ziren Euskal Herriko kultura mailako arte-estilo berriaren aldaketa babestu zutenak eta, joera horri helduz, 1763an Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte sortu zuten. Elkarte horrek Ilustrazioaren espiritua bultzatu zuen Euskal Herrian.

Ilustrazioak bizitza errealitatearen eremutik ulertu zuen eta ez sentimenduenetik. Arte-mugimenduari dagokionez, barrokoaren adierazkortasun emozionala eta forma gainkargatuak bertan behera utzi zituen, soiltasuna, marra zuzenak eta, batez ere, dekoraziorik eza nabarmentzen ziren artearen kontzeptu berri baten alde eginez. Horretarako, tradizio klasikoa eta jakintza-arlo guztietan antzinate klasikoaren ereduak berreskuratu ziren.

## Arkitektura neoklasikoa

---

Neoklasizismo garaiko arkitektura oso garrantzitsua izan zen, gainerako agerraldi artistikoak (pintura, eskultura...) baino gehiago garatu baitzen. Arkitekturak ezin hobeto laburbildu zituen Ilustrazioak artearen inguruan zuen ideia, hau da, neurrizko estetika berreskuratzea, forma geometrikoetan oinarritutako lerro zuzenak nagusitzea eta, orokorrean, aurretik aipatu ditugun ezaugarri nagusiak arkitekturari islatzea: eredu klasikoak, marra zuzenak eta apaindurarik gabekoak eta praktikotasuna.

Egituraren argitasuna, apaingarrien sinpletasuna eta geometrismo huts-hutsa dira arkitektura neoklasikoaren beste ezaugarri nagusiak. Arkitekto neoklasikoen ustetan, bolumen zehatz, trinko eta hierarkizatuen bidez eta geometria soil eta simetrikoaren bitartez definitzen zen eraikina. Kanpoko bolumenek argi islatu behar zuten barrenaldea, eta hutsuneak (ateak eta leihoak) laukirik gabe zabaldu behar ziren hormetan.

Britainia Handia herri emankorra izan zen arte mota honetan. Italiak baino lehenago agertu zuen klasizismoaren joera Inigo Jones (1573-1652), Palladioren jarraitzailearekin. Garai horretakoak dira adibidez Londresko National Gallery eta British Museum eraikinak. Frantzia, eraikin ezagunenetakoa Versailles-eko errege-opera (1769) eta Pariseko Concorde plaza dira. Baita Pariseko Sainte-Geneviève eliza ere (gaurko Panteoia).

## Arkitektura neoklasizista eta Euskal Herria

Neoklasizismo arkitektonikoa Euskal Herrian gutxi-gorabehera mende batean zehar garatu zen eta kanpotik iritsitako eragina erabakigarria izan zen. Zentzu honetan, neoklasizismoa euskal lurraldean indartsu sustraitu zen estiloa izan zen.

Nahiz eta testuinguru historikoa egokia ez izan, Euskal Herrian garai horretan egin zen eraikin-kopurua eta horien kalitatea aipatzekoak dira. Lehen esandakoaren harira, Euskal Herriko arkitektura neoklasikoa ez zen izan, beste aldi batzuetan bezala, berandu iritsitako estiloa, baizik eta lehen unetik iritsitakoa.

Estiloari dagokionez, Euskal Herriko neoklasizismoak erromatar klasizismoko elementuak ditu. Horiekin batera, Europan zehar zabaldu ziren neoklasizismoetatik, euskal lurretan Frantziako arkitektura neoklasikoaren elementuek izan zuten eragin handiena. Zentzu horretan, Ventura Rodriguez arkitektoak garrantzi handia izan bazuen ere, hark ekarri baitzuen estiloa Euskal Herrira, Silvestre Perez izan zen Euskal Herriko neoklasizismoaren bultzatzaile garrantzitsua, eta guztiz erabakigarria izan zen haren lan egiteko eta arkitektura ulertzeko modu zorrotz, soil, sinple eta monumentalak. Modu hori aise bereganatzen ez ezik, garatzen jakin izan zuten beste euskal arkitektoek, esaterako Santos Angel Otxandategi arkitekto nafarrak edo Justo Antonio Olagibelarabarrak.

Orokorrean tipologia zibila erlijiosoari gailendu zitzaion eta garai honetako eraikin zibilak ugari eta garrantzitsuak izan ziren. Horrez gain, aldi honetako aurrerakuntzen ondorioz, eremu zibila zabaldu eta aberastu egin zen. Tipologia berriak eta bestelako eginkizunak zituzten eraikinak joan ziren zabaltzen: ospitaleak, museoak, antzerkiak eta portuak.

- **Arkitektura erlijiosoa.** Forma nagusien artean, oinplano laukizuzen batean oinarritutako gurutze grekoko oinplanoa aipatu behar da. Barrenaldean, berriz, erdiko kupula izan zen elementurik garrantzitsua, espazioaren zentzu bateratua azpimarratzeko elementu nagusia, eta kanpoaldean, estalkien konbinazioa nabarmendu ohi zen. Tipologiei dagokienez, elizak eta hilerriak dira nagusi. Adibideen artean dauzkagu Iruñeko katedralaren fatxada, Mutrikuko Jasokundearen eliza edo Markina-Xemeingo hilerria.

- **Arkitektura zibila.** Elementu apaingarriak baztertu egin ziren, besteak beste, moldurak, mentsulak eta karelak. Horien ordean, egituraren neurria eta itxura bolumenduna eta trinkoa azpimarratu ziren, ondo landutako harlanduen eta hutsune etzanen lerroen bidez; horman zuzenean zabalduetako hutsune horiek izaten ziren, gainera, konposizio erreferentzia bakarra.

Barrokoan jada nabarmentzen hasi zen bezala, tipologia zibilari erlijiosoari baino garrantzi handiagoa eman zitzaion eta garai honetako eraikin zibilak ugari dira. Garaiko gizartean bezala, eremu zibila zabaltzen eta aberasten ari zen heinean, tipologia honetako eraikuntza motak ere zabaltzen joan ziren. Ospitaleak, museoak, antzerkiak, portuak eta batez ere agintaritzaren zibilari lotutako eraikuntzak ditugu adibide nagusiak. Udaletxeak esate baterako, Arabako Diputazioaren Jauregia, Donostiako Udaletxe izandakoa edota Gernikako Batzar Etxea.

- **Hirigintza.** Garai honetan aurrera egin zuen tipologia nagusia hirigintza. Hiriak biztanleen beharretara egokitzeko plangintza. Hiri idealaren eredu aurkitzea du helburu. izan zen. Hiri eta herri gehienak Erdi Aroko egituren barruan hazten zihoazen, baina garai honetatik aurrera plazak eraikitzen eta hirigintza proposamen berriak egiten hasi ziren, hala nola, hirietako oinplanoak, premia sozio-ekonomiko berrietara egokitzeko helburua zutenak. Adibideak emate aldera, hor dauzkagu Donostiako hirigintza egiturarako proiektua, Bilboko Areta lorategia, Bilboko Plaza Berria, Donostiako Konstituzio plaza eta Gasteizko Plaza Berria, aldi horretan eraikiak. Beste adibide esanguratsu bat Gasteizko Arquillos etxea da. Eraikuntza horrek, arkitektura zibileko adibidea izateaz gain, hirigintza funtzioa bete zuen bere garaian. Izan ere, hiriko alde zaharraren eta hiriaren zabaltze prozesuaren arteko aldea libratzeko modu burutsua izan zen.

# Eraikuntza-elementuak

---

Neoklasizismoak, orokorrean eta laburbilduz, berariazko ezaugarri hauek ditu:

- Barrokoko forma gainkargatuak bertan behera utzi eta soiltasunari, marra zuzenei eta dekorazio ezari ematen zaie garrantzia.
- Eredu greko-erromatarrek: tradizio klasikora jotzen dute artistek, eredu haiek berreskuratuz.
- Eraikinaren formak funtzioari erantzun behar dio. Espazioa, berriz, arrazionalki kalkulatu da.
- Obrek forma zehatzak eta trinkoak dituzte, linea sinpleak, bolumenetan armonia, simetria eta ikuspegi orokorraren edertasuna bilatzen delarik.
- Bi izan ziren forma- eta egitura-elementu neoklasiko nagusiak:
  - Frontoiak, orokorrean, oso sinpleak eta apaingarririk gabekoak dira.
  - Zutabea da elementu nagusia edozein eraikinetan eta hainbat plazatan arkupeak (arkuz eta zutabez osatuak) protagonista bilakatzen dira.
- Arkitektura erlijiosoan laukizuzen batean inskribaturiko gurutze grekoko oinplanoa erabili ohi da, eta erdiko kupula elementu garrantzitsuenetarikoa da.
- Arkitektura zibilak erlijiosoak baino askoz garrantzi handiagoa hartzen du, gizarte burgesak eraikin publikoak bultzatu baitzituen: liburutegiak, merkatuak, museoak, ospitaleak, presondegiak... Ildo beretik, hirigintzak eginkizun garrantzitsuagoa eta funtzio gehiago beretu zituen.
- Hirigintzari dagokionez, proposamen berriak bultzatzen dira.

<b>Eraikinaren izena</b>	<b>Konstituzio plaza eta Udaletxe Zaharra. Donostia (Gipuzkoa)</b>
<b>Estiloa / Garaia</b>	Neoklasizismoa, XIX. mendea
<b>Eraikinaren funtzioa</b>	Arkitektura zibila
<b>Deskribapena</b>	Konstituzio plaza hiru eraikinek mugatzen dute. Horien beheko solairua arku berdinez osatuta dago eta horrez gain beste hiru solairu dituzte. Plaza honetan Donostiako Udaletxe Zaharra dago, aldameneko etxebizitzekin bi zubiren bitartez elkartuta. Udaletxearen beheko solairuan 5 arku zorrotzez osatutako arkupea dugu, eta hurrengo bi solairuak, arkupe gainekoak alegia, doriar ordenako sei zutabe erraldoik zeharkatzen dituzte. Goialdean arkitrabea dugu, erloju batez eta hiriko harrizko armarriaz apaindua.
<b>Arkitektoa</b>	Pedro Manuel Ugartemendia

<b>Eraikinaren izena</b>	<b>Gayarre antzokia. Iruñea (Nafarroa)</b>
<b>Estiloa / Garaia</b>	Neoklasizismoa, XIX. mendea
<b>Eraikinaren funtzioa</b>	Arkitektura zibila
<b>Deskribapena</b>	Gaur egungo Gayarre antzokia 1932. urtean eraiki zuten. Dena den, antzinako fatxada neoklasikoa bere horretan mantentzen da, Jose Nagusiak diseinatu zuena alegia. Fatxada harriz eginda dago eta bi solairutan banatzen da. Lehenengo solairua oso sinplea da. Bertan bost ate arkitrabebedun irekitzen dira, eta bakoitzaren gainean leiho bat dago. Zuzenak dira eta erdian daude kokatuta. Izkinetan dauden biak erdizirkularrak dira. Bigarren solairuan, joniar ordenako sei zutabe monumental daude. Horien artean dauden espazioak, bi izkinetan, itxita daude, baina erdian dauden zutabeen arteko espazioak irekita daude. Harrizko balaustrada batek ixten du terraza hau. Tradizioari jarraituz, zutabearen gainean arkitrabe horizontala dugu, eraikinaren azken muga gisa.
<b>Arkitektoa</b>	Pedro Manuel Ugartemendia eta Jose Nagusia

Eraikinaren izena

Estiloa / Garaia

Eraikinaren funtzioa

Deskribapena

Arkitektoa

### **Atxuriko ospitalea. Bilbo (Bizkaia)**

Neoklasizismoa, XIX. mendea

Arkitektura zibila

Atxuriko ospitalea 1818tik 1835era bitartean eraiki zuten. Neoklasizismoko eraikin honek garai hartako teoria higienistak sartu zituen bere diseinuan. Teoria horien eraginez, ospitaleak pabilioi isolatutan antolatzen hasi ziren. Horrela, gaixoak eta funtzio desberdinak bananduta egon zitezkeen. Bilboko Atxuriko ospitalean, lehenengo bi solairuek bloke bakarra osatzen dute, erraldoia eta angelu zuzenekoak. Hirugarren solairutik gora hiru pabilioitan antolatuta dago, orrazi formako oinplanoa hartuz. Haizea eta eguzkia aprobetxatzeko asmoarekin, pabilioien artean bi patio daude. Mendebaldeko fatxada eraikinaren elementu esanguratsuena da. Doriar estiloko lau zutabe erraldoik ataria eratzen dute. Zutabeen gainean, triglifoak eta metopak dituen entablamentua dago, eta, erremate moduan, hiriko armarri handia.

Gabriel Benito Orbegozo

Eraikinaren izena

Estiloa / Garaia

Eraikinaren funtzioa

Deskribapena

Arkitektoa

### **Díaz-Espada apezpikuaren jauregia. Armentia (Araba)**

Neoklasizismoa, XIX. mendea

Arkitektura zibila

"Santuaren etxea" ere esaten diote. Justo Antonio Olagibel arkitekto arabarrak diseinatu eta eraiki zuen jauregi hau Armentian. Estilo neoklasikokoa da eta, oinplanoari dagokionez, laukizuzena. Fatxada nagusia da eraikinaren atal interesgarriena. Harlanduz eraikita dago eta bi zutabe erraldoik fatxada hiru arlotan banatzen dute. Era berean, goiko arkitrabe handiari eusten diote. Fatxadaren erdian atea dago eta honen gainean San Prudentzioren irudia eta aingeru bana bi alboetan.

Justo Antonio Olagibel

Eraikinaren izena

Estiloa / Garaia

Eraikinaren funtzioa

Deskribapena

Arkitektoa

### **Jasokundearen eliza. Mutriku (Gipuzkoa)**

Neoklasizismoa, XIX. mendea

Arkitektura erlijiosoa

Hauxe da arkitektura neoklasikoaren eredu esanguratsuena Gipuzkoan. Eraikin erlijiosoa izan arren kutsu zibila dauka. Gurutze grekoaren formako oinplanoa du. Apaingarri gabeko fatxada aurkitzen dugu, non sei zutabe doriarrek ataria osatzen duten. Haren aurrean, eskailera monumentalaren bitartez, atarira heltzen da. Kanpandorra elizaren atzealdean kokatuta dagoenez, aipatu dugun estilo zibil hori nabarmentzen da.

Silvestre Perez

Eraikinaren izena	<b>Markina-Xemeingo hilerria. Markina-Xemein (Bizkaia)</b>
Estiloa / Garaia	Neoklasizismoa, XIX. mendea
Eraikinaren funtzioa	Arkitektura erlijiosoa
Deskribapena	Markina-Xemeingo kanposantuaren ezaugarriak tradizio klasikoari lotuta daude. Forma erregularra du, angeluzuzena alegia, eta horma batek ixten du espazio osoa. Sarrera nagusiak eta kaperak pareko aldean kokatuta daude, eraikinaren erdiko ardatza osatuz. Bai sarreran, bai kaperan antzeko diseinua errepikatzen da: trapezio-formakoak dira eta frontoi triangeluarrek euskarri batzuk dituzte ertzetan, akrotera deritzenak. Arkupe perimetralak inguratzen du espazio osoa, zutabe dorianez hornituta. Xabier Maria Muniberen mausoleoa da elementurik aipagarrienetakoa.
Arkitektoa	Mariano Jose Laskurain

Eraikinaren izena	<b>Gasteizko Plaza Berria. Gasteiz (Araba)</b>
Estiloa / Garaia	Neoklasizismoa, XIX. mendea
Eraikinaren funtzioa	Arkitektura zibila
Deskribapena	Gasteiz hiria zabaltzeko asmoarekin eraiki zen Plaza Berria. Olagibel arkitektoak egin zuen Neoklasizismoaren eredu bikain hau. Proporzioak oso erregularrak ditu, laukizuzena baita, eta albo guztiek neurri bera dute: 61 metro. Fatxadak ere uniformetasun handia du. Arkupeak plaza osoa inguratzen du eta etxebizitzetako lehen bi solairuak arkupeen barruan daude. Horiez gain, beste bi solairu gehiago daude arkupeen goialdean. Udaletxeak apurtzen du uniformetasun hori, hau da, arku erdizirkularren ordez zutabe toskanarrak ikusten dira, eta frontoi handi bat erremate gisa.
Arkitektoa	Justo Antonio Olagibel